

**Enpresaren identifikazioa eta helbidea**

- Electroquímica de Hernani, S.A.
- Epele auzoa, 26. zenbakia - 20120 – Hernani (Gipuzkoa)

**1254/1999 Errege Dekretua betetzen dela adieraztea**

ELECTROQUÍMICA DE HERNANI, S.A. enpresaren instalazioak uztailearen 16ko 1254/1999 Errege Dekretuko erregelamenduzko xedapenak beteko ditu. (Errege Dekretu horren bidez, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onesten dira).

Arautegi honen 9. artikuluko 1. atalean adierazitakoari jarraiki, enpresak bidezko segurtasun-txostena helaraziko dio agintari eskudunari.

**Enpresaren jarduera**

Electroquímica de Hernani, S.A. enpresaren instalazioan produktu elektrolitikoak fabrikatzen dira: kloroa, soda, azido klorhidrikoa, hipokloritoa, hidrogenoa, e.a.

**Istripu larria eragin dezaketen gaiak**

Fabrikazio-prozesuan gai jakin batzuk erabiltzen dira, besteak beste, azido klorhidrikoa, azido sulfurikoa, sodio kloratoa, ur oxigenatua, sodio dikromatoa eta sodio hidroxidoa. Hala ere, gai horien ezaugarriak eta kantitateak kontuan hartuta, arriskuen analisietatik ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, instalaziotik kanpo eragiten duten istripuak) kloroa tartean denean bakarrik gerta daitezkeela.

Kloroa gas likidotu toxikoa da, itogarria eta narritagarria, eta instalazio honetan biltegi ezberdinetan gordetzen da.

**Istripu larriak eta horien ondorio posibleak**

Egoera horren ondorioz, instalaziotik kanpo eragina duten istripu larriak izan daitezke:

- Kloroak etengabe ihes egitea lineatan, zisternak kargatzeko besoetan, tenkagailuetan, e.a. zuloa egin delako.
- Kloroak ihes egitea kloro-zilindroak hautsi egin direlako (500 eta 1.000 kg-ko edukierakoak).

Istripu horiek hodei toxikoa sor dezakete, eta horrek hainbat ondorio izan ditzake pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean. Kontzentrazio toxikoaren arabera, bi jardun-eremu zehaztu dira: Esku hartzeko alderdia eta alerta-egoerako alderdia. Alderdi hauei dagozkien balioak eta ondorioak honakoak dira:

Aldea	Kontzentrazio-balioa	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunetan	Pertsonengan	Ingurumenean
EA	IPVS	---	Ez dago sintoma larriarik, ez eta ondorio itzulgarriarik ere (gehienez ere 30 minutuko esposizioa)	---
AA	IPVS %25	---	Ondorio txikiak talde sentikorretan	---

**Istripu larria gertatuz gero biztanleak ohartarazi eta informatzea**

Goian aipatutako istripuetakoren bat eragin lezakeen istripu-egoera agertzen bada instalazioan, agintariak arduratuko dira biztanleak ohartarazteaz eta informatzeaz. Honako bitartekoak erabiliko dira biztanleak ohartarazi eta informatzeko:

- Zuzeneko jakinarazpenak, megafoniaz. Udaltzaingoak edo Ertzaintzak egingo ditu.
- Gizarte-komunikabideak (telebista eta irratia).

**Instalazioan larrialdi-egoera agertzen bada biztanleek hartu beharreko neurriak**

Instalazioan istripu larria gertatzen bada, biztanleek jarraian aipatzen diren neurriak hartuko dituzte, istripu-egoeraren ezaugarriak, horren bilakaera eta instalazioekiko hurbiltasuna kontuan hartuta:

- Konfinamendua
- Urrutiratzea

Konfinamenduari edo urrutiratzeari dagozkion oinarritzko jarraibideak honakoak dira:

**KONFINAMENDU ETA AUTOBABESERAKO JARRAIBIDEAK**

- KALEAN BAZAUDE, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN ETA BILATU BABESLEKUA
- ITXI ATEAK ETA LEIHOAK (AHAL BADA, JAITSI PERTSIANAK) ETA ALDENDU. BEHARREZKOA BADA, JARRI TRAPU BUSTIAK ZIRRIKITUETAN. EZ ERABILI KANPOTIKO AIREZTAPENENKO APARATUAK.
- EZ EGON ERAIKUNTZETAKO BEHEKO ALDEETAN (SOTOAK, GARAJEAK, E.A.). AHAL BADA, IGO SOLAIRU GORENETARA.
- EZ ZAITEZ JOAN SEME-ALABEN BILA ESKOLARA. ARDURAPEAN DITUZTENENK BADAHITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DITUZTEN.
- EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT.
- ENTZUN BERTAKO IRRATIAK ETA JARRAITU AGINTARIAK EMATEN JOANGO DIREN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK

**URRUTIRATZEKO ETA BABESLEKUA BILATZEKO JARRAIBIDEAK**

BEHARREZKOA BADA URRUTIRATZEA ETA BABESLEKUA BILATZEA, NORA ETA NONDIK JOAN BEHAR DEN ADIERAZIKO DA, ZUZENEAN JAKINARAZIZ EDO KOMUNIKABIDEEN BITARTEZ.  
ONDOKO JARRAIBIDEAK BETEKO DIRA:

- URRUTIRATZEN ZAREN BITARTEAN, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN ETA BILATU BABESLEKUA
- JOAN BEHARREKO LEKURA HELTZEN ZARENEAN, BILATU BABESLEKUA LOKAL EDO ERAIKIN BATEN BARRUAN ETA ITXI LEIHOAK ETA ATEAK.
- EZ ZAITEZ JOAN SEME-ALABEN BILA ESKOLARA. ARDURAPEAN DITUZTENENK BADAHITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DITUZTEN.
- EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT.
- ENTZUN BERTAKO IRRATIAK ETA JARRAITU AGINTARIAK EMATEN JOANGO DIREN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK

**Istripu larria gertatuz gero instalazioan egin beharrekoa**

1254/1999 Errege Dekretuan adierazitako betebeharrei jarraiki, instalazioan honakoak egin beharko dira:

- Neurri egokiak hartu istripuak ahalik eta ondorio txikienak izan ditzan.
- Kanpoko larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jarri

Instalazioan bertan egiten diren esku hartzeko jardunak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak Barruko Larrialdietarako Planean jasotzen dira.

**Kanpoko Larrialdietarako Plana**

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak Kanpoko Larrialdietarako Plana garatu du ELECTROQUÍMICA DE HERNANI, S.A. enpresaren instalazioan gerta litezkeen istripuetarako. Plan horren bidez, instalaziotik kanpo eraginik izan dezaketen eta, ondorioz, instalazioaren inguruetan eragiten duten egoerei aurre egiteko antolatze modua eta beharrezko baliabideak ezartzen dira.

Kanpoko Larrialdietarako Plan honetan, larrialdi-zerbitzuek nola jokatuko duten adierazten da eta, horrez gain, larrialdi-egoera agertzean zerbitzu horiek emango dituzten aginduak ere jasotzen dira.

**Informazio gehigarria**

Informazio gehigarria nahi izanez gero:

- Web orria: [www.euskadi.net/112](http://www.euskadi.net/112)
- Telefonoa: 945 01 88 83